

2022KO ZERGA ORDENANTZA

IRAGARKIA

39/2015 Legearen 129 eta 133. artikuluek diotenari jarraituz, 2021eko urriaren 22ko Osoko Bilkuraren akordioari, zeinak 2022ko Zerga Ordenantzak behin behinekoz onartzen zituen (GAO 2021-10-22, 203 zk.), alegazio bat aurkeztu zaio arauzko informazio publikorako epean. Horregatik, 2021-12-16ko Osoko Bilkurak alegazioren ebazpena eman eta 2022ko Zerga Ordenantzak behin betikoz onartu ditu.

Aipatu Zerga Ordenantzak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta aldatutako testuak honela gelditzen dira:

1.- ZERGA

1.a.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

1.a.1.- Hiri Ondasun Higiezin gainerako zergari aplikagarri zaion karga tasak:

- | | |
|--|---------|
| -Lurzoru industrialean edo hirugarren sektorean kokatutako ondasun higiezin hiritarren karga-tasa: | % 0,600 |
| -Gainerako ondasun hiritarren karga-tasa: | % 0,241 |

Errekargua:

- Ohiko egoitza ez diren etxebizitzentzat %100eko errekarua.

Errekargua ordaintzetik salbuetsita egongo dira ez ohiko etxebizitza hauek:

- Ondasun higiezin gainerako zergan ordenantzako 2.puntuko hobaria dutenak.
- Errentan emateko erakunde publiko baten esku jarritakoak (Bizigune, Alokabide). Lagapen-kontratuak aurkeztu beharko dira, aurreko urteetan sinatutakoak eta indarrean daudenak. Baita ere, alokairu kontratu pribatua dutenak (kontratu aurkeztu beharko dute eta EAEko hiri-finken errentamendu-kontratuen erregistroko ziurtagiria). Kontratu hauen berri Foru Ogasunari emango zaio, jakinean egon dadin. Ez da onartuko doako lagapenik edo prezio sinbolikoa duten kontraturik.
- Zahar-etxeetan errolatuta dauden hirugarren adineko pertsonen jabetzakoak diren etxebizitzak (gehenez ere etxebizitza bat).

Inguruabar hau egiaztatzeko, egoitzak emandako egiaztatzea aurkeztuko da, eta sarrerako eguna ere jasoko da bertan.

- Ofizialki onartutako dependentzia egoera dela eta etxebizitzan inor errolaturik ez izatea (gehenez ere etxebizitza bat). Kasuak:

1.- Ofizialki onartutako dependentzia egoera dela eta, etxejabea beste etxebizitza batera aldatu beharra izan duelako inor erroldatu gabe gelditu den ohiko etxebizitza (gehienez ere etxebizitza bat).

Inguruabar hori mendekotasuna egiaztatuko duen dokumentua aurkeztuta eta erroldatze agiriarekin egiaztatuko da.

2.- Mendekoa inor erroldaturik gabeko etxebizitzan urteko denboraldi luze bat pasatzen duena: Inguruabar hori egiaztatzeko mendekotasun egiaztagiria eta etxebizitza jabearen zinpeko aitortpen idatzia aurkeztu beharko du.

- Antolamenduz kanpo daudenak, erortzeko zorian aitortuak (ruina), hirigintza kudeaketara lotuak.

Inguruabar horiek hirigintza-saileko teknikariek xede horretarako bideratutako txostenaren bidez azalduko dira.

- Babes berezi mailan deklaraturako etxebizitzak. Ondasun higiezin gaineko zergan 12/1989 Foru Dekretuko 4.2 artikuluko e) apartatuan jasotako salbuespena aitortuta duten etxebizitzak.
- Etxebizitzaren titularra hil denetik bi urteko epea igaro ez denean, heriotza egunetik zenbatuta, beti ere titular horren jabetza %50 edo gehiago denean. Inguruabar hau egiaztatzeko, heriotza-ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Babes Ofizialeko etxebizitza baten esleipenduna izan eta bertara bizitzera joateko epe barruan egotea.
- Jarduera ekonomikoetara bideratutako etxebizitzak, ezinbestekoa izanik, JEZn altan egotea.
- Lurzoru urbanizaezinean dauden etxebizitzak, eta lurzoru urbanizaezina eta urbanizagarria/urbanoa duten auzoetako lurzoru urbanizagarri/urbanoan dauden etxebizitzak.
- Etxebizitza librea erosi denetik urte beteko epean, jabetza baimena ematen denetik edo eskritura egiten denetik kontaktzen hasita.
- Zergaren sortzapena ematen bada aurreko alokairu-kontratuaren amaiera-dataren eta hurrengo alokairu-kontratuaren hasiera-dataren artean, beti ere, denbora-tarte hori, gehienez, hiru hilabetekoa bada.
- Zergaren sortzapena ematen bada erabil ezintasuna duen eraikin batean, baldintza hauekin:
 - Udalean hirigintza izapideak eginak izan behar ditu.
 - Erabil ezintasun txostena Oñatiko Udaleko Hirigintza Zerbitzuak emango du.
 - Errekarguaren salbuespenak honako epea barne hartuko du: Udaleko hirigintza izapideak egin baino urtebete lehenagotik hasi eta Udaletik erabilpen baimena jaso eta 6 hilabete ondoren arte.

- Aldibaterako bizilekua den etxebizitzetan, honako baldintzak betetzen dituenean:

1.- Familia/Elkarbitza unitatea erroldatua egotea Oñatin, udaletxetik, gutxienez, 5 km-ra dagoen etxebizitza batean.

2.- Familia/Elkarbitza unitateko etxebizitza bati salbuetsiko zaio errekarua, eta horretarako, etxebizitza horren aurreko urte naturaleko edozein hilabetetan kontsumo-fakturak, gutxienez, honakoak izango dira: 150 kWh-ko argindar-faktura edo 300 kWh-ko gas-faktura.

Hobariak:

1.-Babes ofizialeko etxebizitzek %50eko hobaria izango dute. Hobari honen iraupena 3 urtekoa izango da, lehen erabilpen baimena eman den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.-Obra berrikoak nahiz haiekin parekagarri diren eraberriketakoak, urbanizazio, eraikuntza eta sustapen inmobiliarioko enpresek egin duten jardueraren xede direnean eta haien ibilgetuaren artean ageri ez direnean, beti ere interesatuek obrei ekin aurretik hala eskatzen badute: % 50.

Aplikatzeko epea obrak hasi ondorengo zergalditik, horiek amaitu ondorengo zergaldira bitartekoa izango da. Epe horrek inoiz ezingo ditu hiru zergaldi gainditu.

3.-Familia/Elkarbitza unitate ugariatzat edo 1 edo 2 seme-alabako beste familia/elkarbitza unitateentzat, oinarri ezargarrien muga ezarrita. Hobarien portzentajeak, diru-sarreraren eta seme-alaba kopuruaren arabera kalkulatu dira, honela hain zuzen:

Oinarri ezargarria

	0 €-tik 12.000 €-ra	12.000,01 €-tik 24.000 €-ra	24.000,01 €-tik 50.000 €-ra	50.000,01 €-tik 90.000 €-ra	90.000,01 €-tik gora
1-2 seme-alaba	%60	%0	%0	%0	%0
3 seme-alaba	%90	%90	%50	%20	%0
4 seme-alaba	%90	%90	%70	%40	%0
5 seme-alaba edo gehiago	%90	%90	%90	%60	%0

Gurasoen egoeragatik Familia/Elkarbitza unitate ugariatzat hartzen diren Familia/Elkarbitza unitateak taularen bigarrenko lerrokadan sartuko lirateke.

Familia/Elkarbitza unitateen seme-alabetako batek desgaitasunen bat edo lan egiteko ezintasunen bat aitorturik izanez gero, Familia/Elkarbitza unitateko seme-alaba kopurua egokitu egingo da eta kide hori bi kide bezala kontatuko da.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Oñati Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatze ondorengo informazioa kontsultatuko du zuzenean:

– Foru Ogasunak-PFEZ kontsulta.

– Gipuzkoako Foru Aldundia: Familia-ugarien tituluen kontsulta.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorriz, eskatzaileak bere datuak

konsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, Udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu, eskatzaileak aurkeztu beharko du.

3.puntuako zerga-hobariaren mugak:

- Katastro-balioa 220.000 € baino handiagoa bada, hobaria aplikatu aplikatuko da, baina gehienez ere balio horren gainean.

- Oinarri ezargarrien muga zehazteko, hobaria aplikatu beharreko aurreko urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik hartuko da, betiere Familia/Elkarbizitza unitate osatzen duten kide guztiak kontuan hartuta.

- 3.puntuak ematen den hobaria bateraezina izango da OHZren gainean ezarritako edo ezar daitekeen beste edozein hobarirekin.

- Hobaria soilik aplikatuko zaio Familia/Elkarbizitza unitatea bizi ohi den ondasun higiezinari. Finka horretan, etxebizitzaz eta ganbara edo trastelekuaz gain dauden beste lokalek ez dute hobaririk izango.

- Ondasun higiezin bati ohiko bizitegi izaera emateko, ezinbesteko baldintza izango da ondasun higiezin horretan erroldaturik egotea zerga-hobaria izateko eskubidea duten Familia/Elkarbizitza unitateko kide guztiak.

- Ez du izango atzeraeraginik eta, kasu konkretu honetan, hobari-eskabideak eragina izango du aurkezten den urtetik -barne-.

3.puntuako hobaria lortzeko baldintza formalak:

Hiri ondasunen OHZren subjektu pasiboek aplikazioko zergaldiari dagokion sortze egunean (urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean) 3 puntuako Familia/Elkarbizitza unitateen titular badira, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

-Interesdunak sinatutako eskabidea; bertan, identifikatuko beharko dira eskatzailea (izen-abizenak, NAN) eta hobaria eskatzeko xede den ondasun higiezinak.

-Familia/Elkarbizitza unitate ugariaren /gurasobakarreko/ DBE titulua/agiria edo fotokopia konpultsatua.

- Dirusarreraren maila zerga onuraren aurreko ekitaldian aurkeztutako PFEZren arabera zehaztuko da, Familia/Elkarbizitza unitatea osatzen duten kide guztiak kontutan hartuta. PFEZren aitorpena egin beharrik ez izanez gero, dagokion ziurtagiria aurkeztuko da -

-Hobari-eskaera aztertu ondoren, Alkateak edo honek eskuordetutako organoak dagokion erabakia hartuko du

4.-Subjektu pasiboak Bizigune programaren barnean alokatzen diren etxebizitzaren titularrak direnean: % 50.

Baldintza:

-Hobaria, gehienez, 150.000,00 euroko oinarri ezargarriaren kuotari aplikatuz.

5.-Eguzki-indarra autokontsumorako aprobetxatzeko sistema dutenentzat:

1. Jabetza horizontalaren araubideari lotuta ez dauden higiezinak:

- Baldintza:

- . Eguzkitik datorren energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatzea autokontsumorako.

- Hobaria:

- . Zergaren kuota osoaren gaineko hobaria izan ahal izango dute instalazioa amaitu ondorengo 30 zergaldietan, honako baldintza hauen arabera:
 - a) Instalazioek udal-lizentzia izatea.
 - b) Beroa ekoizteko instalazioek kolektoreak izatea. Kolektoreek administrazio eskudunaren homologazioa izatea, eta gutxienez 4m².
 - c) Aprobetxamendu elektrikorako sistemen kasuan, gutxienez 1 kw-ko potentzia izatea.
 - d) Instalazioak bizitegi-erabilerako higiezinetan egin badira, hobaria % 50ekoa izango da; bizitegi-erabileraz bestelako higiezinetan egin badira, % 25ekoa.

- Hobariaren zenbatekoa:

- . Bizitegi-erabilera: hobari osoa ezingo da izan instalazioaren exekuzio materialaren kostuaren % 50 baino handiagoa -1.500 euroko muga-.
- . Bizitegi-erabileraz bestelako erabilera: hobari osoa ezingo da izan exekuzio materialaren kostuaren % 25 baino handiagoa -3.000 euroko muga-.

2. Jabetza horizontalaren araubideari lotutako eraikinetan kokatutako pisuak eta lokalak

- Baldintza:

- . Instalazio partekatua egitea pisu eta lokal guztiei edo batzuei energia hornitzeko, eta aurreko paragrafoan aipatutako betekizun berberak betetzea.
- . Pisia edo lokala instalazioari lotuta egotea.

- Hobaria:

- . Bizitegi-erabilera: hobaria % 50ekoa izango da.
- . Bizitegi-erabileraz bestelako erabilera: hobaria % 25ekoa.

- Hobariaren zenbatekoa:

- . Hobari osoa ezingo da izan jabe bakoitzari jasanarazitako instalazioaren exekuzio materialaren kostuaren % 50 baino handiagoa.
- . 5kw baino gehiagoko instalazioen kasuan: 3.000 euroko muga.
- . Gainerako instalazioen kasuan: 1.500 euroko muga.

3.- Hobariaren eskaera egiteko:

- Epea:

- . Hobariaren iraupena amaitu aurreko edozein unetan.
- . Eskatzen den zergaldiaren hurrengo zergalditik aurrera izango ditu ondorioak.

- Aurkeztu behar den dokumentazioa eskaera egiterakoan:

- . Proiektua edo memoria teknikoa.
- . Teknikari eskudunak egindako aitortpena, dagokion elkargo ofizialak bisatua/onartua.
- . Teknikari eskudunaren aitortpena aurkezten ez denean: gaikuntza teknikoaren egiaztagiria, berariaz justifikatuko duena instalazioak aurreko paragrafoetan ezarritako (eta hobariaren xede den) baldintza guztiak betetzen dituela.

Jabetza horizontaleko erregimeneko pisu eta lokalen kasuan, aurreko horiez gain:

- . Instalazioan parte hartzen duten jabeen zerrenda eta bakoitzari jasanarazitako kopuruak adierazten dituen agiria.
- . Egokitzen jotzen den beste edozein dokumentazio.

4.- Ez da hobaririk emango:

- . Araudiaren arabera aprobetxamendu termikoko edo elektrikoko sistemak instalatzea nahitaezkoa denean.

1.a.2.-Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa ehuneko 1,1ekoa da.

1.b.- JARDUERA EKONOMIKOKO GAINEKO ZERGA

Ezarritako kuota minimoen igoserarako koefiziente bakarra 2,20ekoa da.

Bide publikoen sailkapena eta kokapen indizea:

- Kategoria: bakarra
 - Indizea: 1

Ponderazio koefizientea. Subjektu pasiboaren negozio-zifra garbiaren arabera:

Negozio-zifraren kopuru garbia

(FDA 1/1993 11. artikulua) (4/2012 Foru Araua. 2 .artikulua, uztailaren 4koa)

1.000.000,00 €-tik 5.000.000,00 €-ra	1,29
5.000.000,01 €-tik 10.000.000,00 €-ra	1,30

10.000.000,01 €-tik 50.000.000,00 €-ra	1,32
50.000.000,01 €-tik 100.000.000,00 €-ra	1,33
100.000.000,00 €-tik aurrera	1,35
Negozio-zifra garbirik gabe	1,31

1.c.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa oinarri ezargarriaren ehuneko %5ekoa da, eta autolikidazio modura kudeatuko da.

Gutxiengo oinarri ezargarriak:

1.-Orokorra: 3.000,00.- euro.

2.-Berezia-moduluak: Obra mota batzuei gutxiengo berezi bat ezarriko zaie:

- 2.a.-Bainu gelatako obrak: 1.500,00.- euro.
- 2.b.-Sukaldetako obrak: 4.500,00.- euro.
- 2.c.-Leihotako obrak: 3.000,00.- euro.

Gutxiengo hauekin desadostasunik balego, udal obra ikuskariak txosten bat egingo du obra ikusi ondoren eta bertan zehaztutako zenbatekoa hartuko da behin betiko oinarri ezargarritzat.

Salbuespena: Fatxada margotzeko lanak eta margotu aurretik egin beharrekoak (zarpeatu, lijatu eta abar).

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren hobariak:

1.-Babes Ofizialeko etxebizitzekin zer ikusia duten eraikuntza, instalazio edo obrak direnean: %50eko hobaria, 24.000€ azpitiko sarrerak dituztenentzat mugatuta. Hobari honen iraupena 3 urtekoa izango da, lehen erabilpen baimena eman den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.-Birginkuntza obrengatik:

2.a.-Irisgarritasun baldintzak hobetzen dituztenak : %90eko hobaria.

Irisgarritasun baldintzak hobetzen dituzten obren artean mota bat igogailua ezartzea edo egokitzearena da. Kasu honetan hobaria ezartzeko ondorengo puntuetako bat bete behar da:

- 1.-Igogailurik ez duten eraikinetan, igogailua ezartzeko lanak egitea.
- 2.-Igogailua duten eraikinetan, igogailua irisgarritasunari buruzko 20/1997 Legea eta hari lotutako irisgarritasunerako arau teknikoetara egokitze lanak egitea.

Gainontzeko kasuetan, hobaria izango du elementu amankomunean irisgarritasun baldintzak hobetzera bideratuta dauden obren oinarri ezargarriaren zatiak, honako kasuetan:

- a.- Elementu amankomuneko obra guztietan.

- b.- Elementu pribatiboko obretan, beti ere, obraren titularra Oñatin erroldatua egoteaz gain, 70 urte edo gehiagoko adina baldin badu edo/eta %33ko ezgaitasun-maila aitortua edo handiagoa baldin badu.

3.-15/1989 Foru Arauren "Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga" V. Kapituluaren 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin. Interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzeko obren tipologia eta ezarri beharreko hobaria honakoa izango da:

A) Zirkunstantzia sozialak

I. Etxebizitza edo merkatal lokal hutsten okupazioa emateagatik

- i. %90eko hobaria inor erroldaturik gabeko baserri bat eraberritzeko lanak honako baldintzapean: obra bukatzen denetik urte beteko epean norbait erroldatzera konprometitzen bada zinpeko idatzi baten bidez, eta ondorengo 4 urteetan, gutxienez, erroldatze hori mantentzen bada.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Ingurumen eta Nekazaritza teknikariak egingo du.

- ii. %50eko hobaria: Baserri batean bigarren etxebizitza egiteagatik, honako baldintzapean: obra bukatzen denetik urte beteko epean bigarren etxe bizitzan norbait erroldatzera konprometitzen bada zinpeko idatzi baten bidez, eta ondorengo 4 urteetan erroldatze hori mantentzen bada.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Ingurumen eta Nekazaritza teknikariak egingo du.

- iii. Merkatal lokalak etxebizitza gisa gaitzeko obrak, gutxitu fisikoak bertan bizitzeko baldintzak betez egiten badira, %50eko hobaria izango da.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Hirigintza unitateko arduradunak egingo du.

- iv. EITak behartutako obretan energia-eraginkortasuna, bizigarritasuna eta irisgarritasuna hobetzera zuzendutako obrak badira, %95eko hobaria.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Hirigintza unitateko arduradunak egingo du.

- v. Gune historikoko fatxaden eraberritzea. Bi kasu:

- %75eko hobaria, fatxada guztiak eraberritzerakoan.
- %50eko hobaria, fatxada bat eraberritzerakoan.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Hirigintza unitateko arduradunak egingo du.

- vi. Leihoak aldatzerakoan %25eko hobaria.

Obra baimentzen duen Alkate-Dekretua beharko da interes bereziko edo udal onurako izendatzeko.

vii. Tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorea sustatzea: Jarduera Ekonomikoen Gaietako Zergaren (JEZ) lehenengo ataleko multzo, talde edo epigrafe hauetakoren batean sailkatutako jarduerak eraikitzean edo birgaitzean %75eko hobaria:

- 64. multzoa. Elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza establezimendu finkoetan. Multzo honetan berariaz kanpo geratzen dira honako jarduerak hauek: 647.3 eta 647.4 epigrafeak.
- 65. multzoa. Elikagaiak ez diren ekoizkin industrialen txikizkako salmenta, establezimendu finkoetan. Multzo honetan berariaz kanpo geratzen dira honako jarduerak hauek: 652.1 epigrafeak eta 654 eta 655 taldeak.
- 662. Taldea. Txikizkako salmenta mistoa edo integratua.
- 67. multzoa: Elikagaien zerbitzuak
- 97. Multzoa. Zerbitzu pertsonalak. Multzo honetan berariaz kanpo geratzen da 979.1 epigrafeak.

Obra baimentzen duen Alkate-Dekretua beharko da interes bereziko edo udal onurako izendatzeko.

II. EAEko 2015-2020 Landa Garapen Programaren lehentasunezko foku arlo bat izanda landa-inguruneetan, gizarteratzea, pobrezia murriztea eta garapen ekonomikoa sustatzea, baserri zein nekazal ustiategieetan egiten diren obrak honako kasuetan:

i. Nekazal ustiategien titularrek baserrietan edo nekazal ustiategietan egindako obrak %90eko hobaria, honako baldintzapean:

- 1.-Nekazal ustiategiari lotutako obrak (ukuiluak, txabolak...) hobaritzeko: eskatzailea nekazal ustiategiaren titularra izan beharko da.
- 2.-Baserriko obrak hobaritzeko honako bi baldintzak bete beharko dira:
 - 2.1.-Eskatzailea nekazal ustiategiaren titularra izatea.
 - 2.2.-Eskaera-datan honakoa betetzea:
 - 1.-Norbait baserrian erroldatuta egotea.
 - 2.-Udaletik erabil baimena jaso ondoren, gutxienez 4 urtez erroldatuta jarraitzea baserrian. Baserria berria egin nahi denean edo erabil ezina (hirigintza zerbitzuen txostena) izanik, birgaitu nahi denean denean, 2.2.1 puntuko baldintza ez da bete beharko, baina norbait erroldatu beharko da bertan 6 hilabetekoa epean, Udalak erabilpen baimena ematen dionetik kontatzen hasita eta, gutxienez, ondorengo 4 urtetan erroldatuta jarraitu beharko du.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Ingurumen eta Nekazaritza teknikariak egingo du.

- ii. %25eko hobaria: Gainontzeko lanak baserrietan, ustiategiarekin edo gabe. Baldintzak:

1.-Baserriaren titularra izatea.

2.-Obra bukatzen denetik urte beteko epean norbait erroldatzera konprometitzen bada zinpeko idatzi baten bidez, eta ondorengo 4 urteetan erroldatze hori mantentzen bada.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Ingurumen eta Nekazaritza teknikariak egingo du.

- III. Gazteria sailaren politikak sustatzeko lanak izateagatik.

- i. %90eko hobaria: Gazte-lokalak ordenantza berrira egokitzeko lanengatik.

Interes bereziko edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Gazteria teknikariak egingo du.

- IV. *Gizarte Zerbitzuetako Udal politikarekin bat egiten duelako*

- i. DBE kobratzen dutenak % 90ko hobaria izango dute.

Interes berezikoak edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Gizarte Zerbitzuetako teknikariak egingo du.

- V. *Hezkuntza saileko politikak*

- i. Itundutako hezkuntzako ikastetxeetako obrak (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Kontseilariaren Agindua): %95.

Interes berezikoak edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Hezkuntzako teknikariak egingo du.

- VI. Tokiko merkataritza sustatzeko:

- i. Tokiko merkataritzako negozio berriak eraikitzean edo birgaitzean: %75.

Interes berezikoak edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Sozioekonomiako teknikariak egingo du.

B) Zirkunstantzia kulturalak edo historiko-artitiskoak

- i. %90eko hobaria Hiri-antolamenduko Plan Orokorrean, babes bereziko moduan adierazitako baserrietan eginiko obrak, beti ere, nekazal jardueratik kanpoko jarduerarik ematen ez bada.

- ii. Elementu berezien zaharberritzea: %95.

Interes berezikoak edo udal onurako izendatzeko txosten teknikoa Hirigintza unitateko arduradunak egingo du.

- 4.- Eguzki-indarra autokontsumorako aprobetxatzeko sisteman egiten diren obrak: %95

Hobarien ohar orokorra:

Enpresa sustatzaileek, gero saldu edo alokatu ahal izateko egiten dituzten birgaikuntza obrak hobari eskubidetik kanpo gelditzen dira.

Hobari desberdinak ez dira metatuko eta beti hobari handiena ezarriko da.

1.d.-TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA.

Karga tasa: Onetsitako koefizienteak, 2009ko abenduaren 23ko, 4/2009 Foru Arauaren arabera, ondorengoak dira:

1.- B, C, D eta E motako ibilgailuen koefizientea:	2,500
2.- A (14 zaldi fiskal baino gutxiago) eta F motako ibilgailuen koefizientea:	2,451
3.- A (14 zaldi fiskal edo handiago) motako ibilgailuen koefizientea:	2,502

Hobaria:

- 1.- Historikotzat jotzen diren ibilgailuek edo 30 urte baino gehiago dutenek %100eko hobaria izango dute.
- 2.- Familia/Elkarbitza unitate ugariak edo 1 edo 2 seme-alabako beste famili/elkarbitza unitateak: bost lagun edo gehiagorentzako autoak, horien titularitatea indarrean dagoen legediaren arabera Familia/Elkarbitza unitate ugari bateko kideren batena edo 1 edo 2 seme-alabako beste famili/elkarbitza unitateko kideren batena denean, baldin eta ondoren zehazten diren errenta mailak gainditzen ez badituzte eta hobaria ematea ekarri zuten baldintzei eusten badiete.

Familia/Elkarbitza unitate bakoitzeko ibilgailu bakarrak jaso ahal izango du hobaria.

Hobarien portzentajeak, oinarri ezargarrien eta seme-alaba kopuruaren arabera kalkulatu dira, honela hain zuzen:

	0 €-tik 12.000 €-ra	12.000,01 €-tik 24.000 €-ra	24.000,01 €-tik 50.000 €-ra	50.000,01 €-tik 90.000 €-ra	90.000,01 €-tik gora
1-2 seme-alaba	%60	%0	%0	%0	%0
3 seme-alaba	%90	%90	%50	%20	%0
4 seme-alaba	%90	%90	%70	%40	%0
5 seme-alaba edo gehiago	%90	%90	%90	%60	%0

Gurasoen egoeragatik Familia/Elkarbitza unitate ugarizat hartzen diren Familia/Elkarbitza unitateak taularen bigarrenko lerrokadan sartuko lirateke.

Familia/Elkarbitza unitateen seme-alabetako batek desgaitasunen bat edo lan egiteko ezintasuna aitorturik izanez gero, Familia/Elkarbitza unitateko seme-alaba kopurua egokitu egingo da eta kide hori bi kide bezala kontatuko da.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Oñati Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatzeko ondorengo informazioa kontsultatuko du zuzenean:

- Foru Ogasunak-PFEZ kontsulta.
- Gipuzkoako Foru Aldundia: Familia-ugarrien tituluen kontsulta.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorriz, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, Udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu, eskatzaileak aurkeztu beharko du.

- 3.- Zerga kuotaren %50eko hobaria izango dute motor hibridoa (argindarrarekin eta gasolinarekin, argindarrarekin eta dieselarekin edo argindarrarekin eta gasarekin) duten ibilgailuak. Etxetik bertatik homologatuta etorri beharko dira.
- 4.- Zerga-kuotaren %75eko hobaria izango dute lantegitik bertatik homologaturik datozen %100 motor elektrikoko ibilgailuek.

Zergadunak berak eskatu beharko du hobaria, eta hurrengo ekitalditik aurrera izango du eragina.

Salbuespena: Desgaitasuna dutenen erabilerarako bakarrik eta beren izenean matrikulatutako ibilgailuei ezarriko zaie, beti ere, sortzapen datan Oñatin erroldaturik baldin badaude eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren, uztailaren 5eko, 14/89 Foru Arauaren 2.1.e artikuluan agertzen diren baldintzak betetzen badituzte.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Oñati Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatze ondorengo informazioa kontsultatuko du zuzenean:

– Gipuzkoako Foru Aldundia: Ezgaitasun-maila aitortzen duen ziurtagiria.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorriz, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, Udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu, eskatzaileak aurkeztu beharko du.

<u>Tarifak:</u>	<i>Euro</i>
<i>Ibilgailuaren potentzia eta mota</i>	
A) Turismoak	
9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	45,07
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	90,14
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	150,23
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	214,73
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	276,07
20 zaldi fiskaletik gorakoak	337,42
B) Autobusak	
21 plaza baino gutxiagokoak	208,25
21etik 50 plazatara bitartekoak	296,59
50 plaza baino gehiagokoak	370,74

C) Kamioiak

1.000 kg-ko karga baliagarri baino gutxiagokoak	105,70
1.000tik 2.999 kg. Bitartekoak	208,25
2.999tik 9.999 kg. Bitartekoak	296,59
9.999 kg. Baino gehiagokoak	370,74

D) Traktoreak

16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	44,18
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	69,42
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	208,25

E) Trakzio mekanikozko ibilgailuek eramandako atoi eta erdi atoiak.

1.000 kg-ko karga baliagarri baino gutxiagokoak	44,18
1.000 kg.tik 2.999 kg.ra bitartekoak	69,42
2.999 kg.tik gorakoak	208,25

F) Bestelako ibilgailuak.

Ziklomotorrak	11,05
125 cc-rainoko motozikletak	11,05
125 cc-tik 250 cc-rainoko motozikletak	18,92
250 cc-tik 500 cc-rainoko motozikletak	37,86
500 cc-tik 1.000 cc-rainoko motozikletak	75,73
1.000 cc-tik gorako motozikletak	151,43

1.e.- HIRI IZAERAKO LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

-Hiri izaerako lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren oinarri ezargaria finkatzeko erabiliko den urteko pontzertajeen taula.

- KOEFIZIENTEAK:

SORRERALDIA(urteka)	KOEFIZIENTEA
Urtebetetik behera	0,14
1	0,13
2	0,15
3	0,16
4	0,17
5	0,17
6	0,16
7	0,12
8	0,10
9	0,09
10	0,08
11	0,08

12	0,08
13	0,08
14	0,10
15	0,12
16	0,16
17	0,20
18	0,26
19	0,36
20 urte edo gehiago	0,45

-Zergapetze tipoa: % 6.

Salbuespena (16/1989 Foru Arauaren (HLBG Zergarena) 2.1.b) artikulua):

16/1989 Foru Arauaren (HLBG Zergarena) 2.1.b) artikuluan aipatzen den salbuespena aplikagarri izango zaie Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak (Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarenak) 4.2.e) artikuluan aurreikusten duen salbuespenean aipatzen diren ondasunen eskualdatzeei, baldin eta haien jabeek edo eskubide errealen titularrek frogaturik uzten badute ondasun higiezin horiek artatu, hobetu edo birgaitzeko obrak euren kontura egin dituztela.

Salbuespen honen eraginkortasunaren baldintza da artapen, hobekuntza edo birgaikuntza obrak udal baimenari benetan lotzea. Era berean, beharrezkoa izango da aipatu lanak ondasuna inorenganatu aurreko lehendabiziko 10 urteetan gauzatzea.

Ondorio horietarako, eraikinen artapen, hobekuntza edo birgaikuntza obrak kontuan izango dira, baldin eta egitura, fatxada edo estalkinen eta beste antzekoen tinkotze eta trataeraren bitartez eraikin horiek berreraikitze helburua badute, eta beti ere, obra horien balio kostu balio katastralaren %25 baino handiagoa badira.

2.- UDAL ESKUMENENKO ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.

2.a.-INTERESATUAK HORRELA ESKATURIK, UDAL ADMINISTRAZIOAK EDO UDAL AGINTARIEK LUZATU EDO AZTERTUKO DITUZTEN DOKUMENTUENGATIKO TASA.

<i>Tarifak</i>	<i>Euro</i>
-Gutxienez 3.000,00.- €ko aurrekontua duen obraren lizentzia, aurrekontuaren gaineko milako 5a. (gauzatze materiala). Tasa honetan 1.c EIOZren salbuespen eta hobari guztiak aplikagarriak dira.	
-Hirigintzako zerbitzu eskaintzagatik:	
-Oinarrizko informazioa ematearen zerbitzu prestakuntzagatiko tasa	10,65
-Berariazko informazioa ematearen eta/edo ziurtagiriak luzatzearen zerbitzu prestakuntzagatiko tasa	117,20
-Fotokopiak kobratuko dira:	
-JEZn altan dagoen edo egon beharko lukeen aktibitate baterako enpresak	0,52
-Gainontzeko kasutan	0,10

2.b.-AUTO-TAXI ETA GAINERAKO ALOKATZEKO IBILGAILUEN LIZENTZIA ETA BAIMEN ADMINISTRATIBOAK EMATEAGATIKO TASA.

<i>Tarifak</i>	<i>Euro</i>
-Auto-taxi eta gainerako alokatzeko ibilgailuen lizentzia eta baimen administratiboak emateagatiko tasa	1.496,65
-Aldaketa lizentziagatik baimenaren tasa	1.978,57
-Kotxea aldatzeagatiko tasa	48,33
-10 urteko eperako hileta-zerbitzuagatik baimenaren tasa	772,47

2.c.-LURZORUAREN LEGEKO 178. ARTIKULUAK BEHARTUTAKO HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEAGATIKO TASA.

<i>Tarifak</i>	<i>Euro</i>
1.- Etxebizitzaren lehen okupazioagatik	27,97
Salbuespena: Babes ofizialetako etxebizitzari ez zaie kobratuko.	
2.- Lokal ez komertzialaren lehen okupazioagatik	14,54
3.- Lokal komertzial edo industrialaren lehen okupazioagatik, m2-ko	1,13
4.-Jarduera espediente bat tramitatzegatik. Iragarkien zenbatekoa eta neurri zuzentzaileen betetzea ikuskatzeko aholkularitza teknikoaren zenbatekoa (zarata, soinu isolatze, jarioak eta abar) aparte kobratuko da	177,84

2.d.-ESTABLEZIMENDUEN JARDUERA EDO INSTALAZIOEN FUNTZIONAMENDUAREN EGIAZTAPEN ETA/EDO IKUSKAPENAK EGITEAREN TASA

1.-

<u>JARDUERA/INSTALAZIOA</u>	<u>Euro</u>
-Merkataritza	332,12
-Zerbitzuak	426,46
-Industria eta ostalaritza	578,50
-Bankariak, banketxeak, bankuak, agentziak, banku espainiar edo atzeritarren sukurtsalak, eta Aurrezki kutxak eta antzekoak	2.655,42
-Gasolindegia eta antzekoak	965,59

Titularitate aldaketetan, jarduerak jarraitzen duenean eta beste aldaketarik ez dagoenean, ez da tasa kitatuko, baldin eta jardueraren etena sei hilabete baino luzeagoa ez baldin bada. Epea handiago balitz tasa aplikatuko da.

100 m²-tik gorako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduek eta solairuan eraikitako 500 m² baino gehiagoko industrialek %100eko igoera izango dute Tasa Orokorrearekiko.

Lokaletako obregatik egindako lekualdaketak eta derrigorrezko behera botatzeak eragindakoak salbuetsita egongo dira.

2.- Lokalen behin-behineko jarduera edo instalazioen egiaztapen eta/edo ikuskapena	108,62
--	--------

SALBUESPENAK:

Ondorengo hauek salbuetsita egongo dira tasa ordaintzetik, baina ez dagokion baimena eskuratzetik:

- a) Lokaletako obrak direla eta larrialdiko behin-behineko egoerak eraginda lekuz aldatu beharra dutenak, baldin eta dagokion baimena badute.
- b) Derrigortutako botatze-lanek, erorketek, suteek eragindako lekualdaketek, eta agindu edo xedapen ofizialak betetzeko egin direla frogatzen direnek.

Aurreko puntuko a) idatz-zatian aipatutako salbuespena aurretiko lokala egokitu edo zaharberritu ondoren irekitzea hartzen du bere barne, 8 hilabete baino gehiago pasatu ez badira.

Lehen puntuko b) idatz-zatiari dagokionez, salbuespen horrek aurretiko lokala egokitu edo zaharberritu, edo aurreko lokalaren ordeztako lokal berria ere barne ulertzen ditu, baldin eta titularrak aurreko lokala lagatzeagatik inolako kalte-ordainik jaso ez badu.

Bi salbuespenen kasuan, derrigorrezkoa izango da irekiko den lokal berriak zaharraren azalera bera izatea eta jarduera bera burutzea.

c.- Olaburu zentroaren araudiaren babesean irekitzen diren jarduerak.

HOBARIAK:

1. Honako hauek kuotaren %50eko hobia izango dute toki ezegokian (nahiz eta baimendua edo toleratua izan) dauden lokal edo establezimenduak Udal Administrazioak egokitzat jotzen dituen tokietara eramaten direnean, lokal berrian ere lehengo jarduera bera garatzeko bada.
2. Ondoko hauek kuotaren %75eko hobia izango dute:
 - a) Senar-emazte eta aitzineko eta ondorengo arteko titular aldaketak.
 - b) Elkarte ez Anonimoen izen sozialaren aldaketa, bazkideren baten heriotzagatik bada.
 - c) Lukuru xederik gabeko establezimenduak.
3. Tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorea sustatzeko helburuarekin %40ko hobia izango dute, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren (JEZ) lehenengo ataleko multzo, talde edo epigrafe hauetakoren batean sailkatutako jarduerak.
 - 64. multzoa. Elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza establezimendu finkoetan. Multzo honetan berariaz kanpo geratzen dira honako jarduera hauek: 647.3 eta 647.4 epigrafeak.
 - 65. multzoa. Elikagaiak ez diren ekoizkin industrialen txikizkako salmenta, establezimendu finkoetan. Multzo honetan berariaz kanpo geratzen dira honako jarduera hauek: 652.1 epigrafea eta 654 eta 655 taldeak.
 - 662. Taldea. Txikizkako salmenta mistoa edo integratua.
 - 67. multzoa: Elikagaien zerbitzuak
 - 97. Multzoa. Zerbizu pertsonalak. Multzo honetan berariaz kanpo geratzen da 979.1 epigrafea.

Hobari hau ofizioz aplikatuko du udalak ,eta beraz, ez da beharrezkoa izango jardueraren sustatzaileak eskaera aurkeztea.

2.e.-SEGREGAZIO TASA.

<i>Tarifak</i>	<i>Euro</i>
-Lurzoru urbano edo urbanizagarriarentzat: segregatutako m2-ko ...	0,1467
-Lurzoru urbanizaezinarentzat: segregatutako m2-ko	0,0209

Edozein kasutan, gehienezko tasa 200,00 €koa izango da.

2.f.-UDAL HILERRITAN ZERBITZUAK ETA HILETA ZIBILAK PRESTATZEAGATIKO TASA.

<i>Tarifak</i>	<i>Euro</i>
<u>Transmisio, oinordetza edo lagatzeagatiko izen-emate eskubideak:</u>	
-Lehen eta bigarren mailako odolkidetasuna duten senitartekoen arteko titulartasun aldaketa	12,79
-Gainerako ahaidetasunak	66,57
-Ahaidetasunik gabekoak	103,83
<u>Panteoien mantenimendu edo kontserbazioagatik:</u>	
-Hilobiak eta nitxoak, 0,90 m.tik 1,30 m.rako zabalera	4,59
-Hilobiak 1,31 m.tik 1,80 m.rako zabalera bitartekoak	7,00
-Hilobiak 1,81 m.tik 2,40 m.rako zabalera bitartekoak	9,39

-Hilobiak 2,41 m.tik 3,20 m.rako zabalera bitartekoak	11,37
-Hilobiak 3,21 m.tik 4,50 m.rako zabalera bitartekoak	13,25
-Hilobiak 4.51 m.tik 5,45 m.rako zabalera bitartekoak	15,79
-Hilobiak 5.45 m.tik gorakoak	17,73
-Kaperak	20,82
Hilobi, nitxo eta antzerakoetan gorpuak, errautsak eta bestelakoak sartzeagatik	22,74
Hilobi, nitxo eta antzerakoetan gorpuak, errautsak eta bestelakoak ateratzeagatik	22,74
 Araozko hilerrian, lurrean zuloa egin, gorpua, errautsak eta bestelakoak sartu eta lurrez estaltzeagatik	 70,61
<u>Hileta zibilak</u> , Hileta bakoitzeko	79,91

2.g.-ZABOR ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOAK ETXEZ ETXE BILTZEAGATIKO TASA.

<i>Tarifak</i>	<i>Euro</i>
11.-Etxebizitza, atez ateko esekitokiak dituzten guneeetan, hiruhileko .	29,09
12.-Etxebizitza, atez ateko esekitokirik ez duten guneeetan, hiruhileko	14,56
21.-Komertzioa, hiruhileko kuota 2 enplegaturaino	92,52
22.-Komertzioa, hiruhileko kuota 5 enplegaturaino	154,19
23.-Komertzioa, hiruhileko kuota 15 enplegaturaino	308,37
24.-Komertsioa, hiruhileko kuota 15 enplegatutik gora	462,57
31.-Ostalaritza, hiruhileko kuota 2 enplegaturaino	123,35
32.-Ostalaritza, hiruhileko kuota 5 enplegaturaino	231,29
33.-Ostalaritza, hiruhileko kuota 15 enplegaturaino	385,47
34.-Ostalaritza, hiruhileko kuota 15 enplegatutik gora	539,66
40.-Industria, 2 enplegaturaino/ro	92,52
41.-Industria, 5 enplegaturaino/hiruhilero	246,71
42.-Industria, 15 enplegaturaino / hiruhilero	462,57
43.-Industria, 50 enplegaturaino / hiruhilero	616,76
44.-Industria, 100 enplegaturaino / hiruhilero	770,95
45.-Industria, 500 enplegaturaino / hiruhilero	925,14
46.-Industria, 500 enplegatutik gora / hiruhilero	1.079,31
51.-Zerbitzua, gutxieneko tarifa / hiruhilero	616,76

Hobaria:

- Etxebizitzak, atez ateko esekitokiak dituzten guneeetan %100 konpostegileak:
%25eko hobaria.

2.h.-ERROTULU KOMERTZIALA JARTZEAGATIK LIZENTZIA ETA BAIMENA EMATEAREN TASA.

<i>Tarifak</i>	<i>Euro</i>
-Tasa	32,61

2.h.bis-ZARATA-NEURKETEN TASA.

<i>Tarifak</i>	<i>Euro</i>
-Tasa arrunta.....	619,12
-Tasa murriztua.....	256,25

a.- Zarata-arazoengatiko salaketen txostenak enpresa aditu batek egingo ditu, eta, b kasuan izan ezik, tasa establezimenduaren titularra izango da tasaren subjektu pasiboa.

b.- Komunitate bereko edozein titularrek/ordezkarik administratzailek 3 hilabeteko epean establezimendu berari txostena berriro egitea eskatuko balu eta txostenaren emaitza araudiak ezarritako mugekin bat etorriko balitz, aipatutako salatzailea izango da tasaren subjektu pasiboa. Aldiz, aipatutako txostenean ikusiko balitz estalezimenduaren zaratak gainditu egiten duela zarata araudiak ezarritako zarata-muga edota zarata mugatzeko sistemarekin edozein aldaketa/ezbehar izan dela, establezimenduaren titularra izango da tasaren subjektu pasiboa.

2.i.-UDAL EUSKALTEGIKO ZERBITZUAGATIKO TASA.

<i>Tarifak</i>	<i>Euro</i>
<u>2021-2022</u>	
-Euskaltegiko Tasa, euro/orduko (2021-2022 ikasturtea)	1,32
-Lantegietako taldeen euskara ikastaroen tasa (2021-2022), euro/orduko	21,43
-Lantegietako pertsonalaren banakako euskara ikastaroen tasa (2021-2022), euro/orduko	61,93
-BOGA autoikaskuntza programa	525,05
- AISA programa (60 ordukoa)	10,22
<u>2022-2023</u>	
-Euskaltegiko Tasa, euro/orduko (2022-2023 ikasturtea)	1,35
-Lantegietako taldeen euskara ikastaroen tasa (2022-2023), euro/orduko	21,97
-Lantegietako pertsonalaren banakako euskara ikastaroen tasa (2022-2023), euro/orduko	63,48
-BOGA autoikaskuntza programa	538,18
- AISA programa (60 ordukoa)	10,48

Euskaltegiko ikasleren batek, ikasturtean zehar haurra izan eta bere zainketak eraginda eskolan jarraitu ezina izanez gero, une horretatik amaitu arteko tarteari dagokion matrikularen hainbatekoaren itzulketa jasoko du.

HOBARIA:

Honako kasuetan dauden subjektu pasiboek 0,1781 euro/orduko tasa ordainduko dute:

- 1.- Langabezia kasuak: Baldintzak:
 - Oñatin erroldaturik egotea.
 - Langabezian egotea (agiri ofiziala)
 - Langabeziako subsidioa kobratzea

2.- Gurasobakarreko Familia/Elkarbizitza unitateak, Genero indarkeria kasuak, Familia/Elkarbizitza unitate ugariak

- Oñatin erroldaturik egotea.

2.a.- Gurasobakarreko Familia/Elkarbizitza unitateak

Gurasobakarreko Familia/Elkarbizitza unitateak (monoparentalak) seme-alaba bi edo gehiagoren karga bere gain badu, hobaria aplikatzeko baldintza hauek beteko beharko ditu:

- Legez mantenu-eskubiderik ez duten adin txikikoen gurasobakarrez osaturiko Familia/Elkarbizitza unitatea izatea.
- Legez, zaintza- eta mantenu-eskubidea aitortuak izanik, mantenurik jasotzen ez duten adin txikikoen gurasobakarrez osaturiko Familia/Elkarbizitza unitatea izatea.

2.b.- Genero indarkeria kasuetan

Genero indarkeriaren biktima egoera ziurtatzen duen Gizarte Zerbitzuen txostena beharko da.

Inor ezin da izan aldi berean bi Familia/Elkarbizitza unitatetako kide

2.c.- Familia/Elkarbizitza unitate ugaria edo 1 edo 2 seme-alabako beste famili/elkarbizitza unitateentzat

2.a, 2.b eta 2.c kasuetan: Seme-alabetako batek desgaitasunen bat edo lan egiteko ezintasunen bat aitorturik izanez gero, Familia/Elkarbizitza unitateko seme-alaba kopurua egokitu egingo da eta kide hori bi kide bezala kontatuko da

Goian aipatu tasari, honako portzentaje hauek ezarriko zaizkio diru-sarrereren eta seme-alaba kopuruaren arabera:

Oinarri ezargarriak

	0 €-tik 12.000 €-ra	12.000,01 €-tik 24.000 €-ra	24.000,01 €-tik 50.000 €-ra	50.000,01 €-tik 90.000 €-ra	90.000,01 €-tik gora
1-2 seme-alaba	%60	%0	%0	%0	%0
3 seme-alaba	%90	%90	%50	%20	%0
4 seme-alaba	%90	%90	%70	%40	%0
5 seme-alaba edo gehiago	%90	%90	%90	%60	%0

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Oñati Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatze ondorengo informazioa kontsultatuko du zuzenean:

- Foru Ogasunak-PFEZ kontsulta.
- Gipuzkoako Foru Aldundia: Familia-ugarien tituluen kontsulta.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorriz, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal

izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, Udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu, eskatzaileak aurkeztu beharko du.

SALBUESPENA:

Ondorengo hiru baldintzak betetzen dituen subjektu pasiboa, tasa hau ordaintzetik salbuetsita egongo da:

- Oñatin erroldaturik egotea.
- Langabezian egotea (agiri ofiziala)
- Langabeziako prestazio ekonomikorik ez izatea, edo, agortuta izatea, edo, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kobratzea.

2.j.-IKASTARO ETA MATRIKULEN TASAK.

<i>Tarifak</i>	<i>Euro</i>
1.- <u>Ikastaroak:</u>	
1.a.- <u>Ikastaroak</u> (Kultur Etxea)	
<u>2021-2022</u>	
-Helduak	78,17
-Adingabekoak	57,22
-10 orduko ikastaro.....	26,05
<u>2022-2023</u>	
-Helduak	80,12
-Adingabekoak	58,65
-10 orduko ikastaro.....	26,70
 <u>SALBUESPENA:</u>	
